

**ZALDIBARKO BIZITEGITARAKO 1. SEKTOREKO SRZ 03-3, SZR 03-4 ETA SZR 03-4 LUR PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN ETXEBIZITZA TASATUAK EROSTEKO ZOZKETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK ETA ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA**

**I.- Xedea**

Plegu honen helburua hauxe da: Zaldibarko bizitegitarako 1. sektoreko SZR 03-3, SZR 03-4 eta SZR 03-5 partzeletan eraikiko diren sustapen pribatuko berrogeita sei 46 etxebizitza (3 bloke, 16 etxebizitza bloke bakoitzean) tasatuetao bat eskuratzeko lehentasunezko eskubidea zozketa bidez lortzen dutenek bete behar dituzten baldintzak zehaztea. Berrogeita zortzi (48) izateko falta diren etxebizitza biak -5. blokeko hirugarren solairuko bi geletako etxebizitzak, alegia- zozketatik kanpo geratu dira, etxeak eraikitzeo erabiliko den lurraren jabeentzat gorde ditugu, aurretik egon diren akordioekin bat etorritz.

Zaldibarko Udalak hautaketa egingo du oinarri hauetako baldintzen eta dagokion ordenantza arautzailean ezarritako prozeduraren arabera.

Hautatu diren pertsonen zerrenda merkataritza-etxeei eman ostean, Zaldibarko Udala aske geratuko da zerrenda horretan agertzen diren pertsonekin edozein harreman edukitzetik, baita etxebizitzaren salerosketaren ondorioz enpresa sustatzaile-etxegilearen eta hautatu diren pertsonen artean sortu daitekeen edozein harreman pribatutik ere.

Eseleitu beharreko etxebizitzak: 6 etxebizitza gela batekoak, 19 etxebizitza gela 2koak eta 21 etxebizitza 3 gelakoak.

Azalera erabilgarriko m2ko prezioak honako hauek dira:

	<b>AZALERA</b>	<b>Prezioa m2</b>
Etxebizitza	<b>Etxebizitzaren arabera</b>	<b>2.467,68€</b>
Garajea	<b>15</b>	<b>975,04€</b>
Trastelekua	<b>3</b>	<b>975,04€</b>

Esleitu beharreko etxebizitzaren azalera:

<b>3. BLOKEA</b>		
BEHEKO solairua	A ETXEA (gela 1)	55,67 M2
BEHEKO solairua	B ETXEA (gela 2)	66,03 M2
1-3 solairuak	A eta D etxeak (2 gela)	68,96 m2
1-3 solairuak	B eta C etxeak (3 gela)	83,12 m2
Teilatupeko solairua	A etxea (3 gela)	95,66 M2.
Teilatupeko solairua	B etxea (gela 1)	59,33 M2

<b>4. BLOKEA</b>		
BEHEKO solairua	A ETXEA (gela 1)	55,74 M2
BEHEKO solairua	B ETXEA (gela 2)	81,67 M2

1-3 solairuak	A eta D etxeak (2 gela)	68,96 m2
1-3 solairuak	B eta C etxeak (3 gela)	83,12 m2
Teilatupeko solairua	A etxea (3 gela)	95,66 M2.
Teilatupeko solairua	B etxea (gela 1)	59,33 M2.

##### 5. BLOKEA

BEHEKO solairua	A ETXEA (gela 1)	48,91 M2
BEHEKO solairua	B ETXEA (gela 2)	68,57 M2
1-3 solairuak	A eta D etxeak (2 gela)	68,96 m2**
1-3 solairuak	B eta C etxeak (3 gela)	83,12 m2
Teilatupeko solairua	A etxea (3 gela)	86,35 M2.
Teilatupeko solairua	B etxea (gela 1)	59,33 M2.

\*\* 3. solairuko bi gelatako etxebizitzak eta etxebizitza horien eranskinak gordeta daude eta zozketatik kanpo.

Azalera horiek aldatu egiten daitezke obretako premien arabera eta ondo justifikatuz gero. Proiektua oinarri hartuta atera diren gutxi gorabeherako azalera dira horiek.

Etxebizitzaren prezioa: etxebizitzaren azalera x m2aren prezioa + eranskinen kostua (trastelekua: 2.952,12.- € eta garajea: 14.625,60.-€). Eranskinak derrigorrean erosi behar dira etxebizitzarekin batera. Horri guztiari BEZ gehitu behar zaio, eta hori ere erosleak ordaindu behar du.

Trastelekuen azalera aldatu egiten daiteke banaketaren arabera. Hala ere, trasteleku bakoitzak ezin du 6 metro karratutik gora izan. Neurri horretakoa izanez gero, benetako azalerari dagokion prezio unitarioa ezarriko zaio.

Horretara, bada, etxebizitzaren prezioak (eranskinak barne) honako hauek izango dira: merkeena(138.244,95.-€), 5. blokeko beheko solairuko A etxebizitza eta garestienak (230.634,88.- €) hiru blokeetako teilatupeko A etxebizitzak. Salbuespena: etxebizitzaren edota trastelekuaren azalaren aldaketarako xedatu dena.

Etxebizitzaren salerosketaren ondorioz sortuko diren Notarioaren eta Jabetza Erregistroaren gastuak eta ordainsariak eroslearen kontu eta pentzura izango dira, baita hortik etorriko diren zergak ere, hiri-lurren balio gehitzearen gaineko Zerga izan ezik.

**Etxebizitza horiek esleipendunen ohiko bizileku iraunkorra izan behar dira.**

## **II.- Parte hartzeko baldintzak eta zozketarako sistema**

### **Lehena.- Baldintza Orokorrak**

Zozkatu behar diren etxebizitza tasatu horietako bat eskatu ahal izango dute Zaldibarko udalbatzarrak onartutako Tokiko Babeseko Etxebizitzei buruzko Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen dituzten norbanakoek. Ordenantza horren kopia bat erantsi zaio eskabide-orriari. Nolanahi ere:

- **Izena emateko epea amaitzen denerako adin nagusikoak izan behar dira eskatzaileak edo emantzipatuta egon behar dira.**

- b) **Izena emateko epea amaitzen denerako eskatzaileak Zaldibarren egon behar du erroldatuta; eskualdeko beste udalerrri batean edo eskualdearen mugakide diren udalerrietako batean erroldatuta egonez gero ere balio du.**

Zaldibarren erroldatutako guztiek daukate aukera zozkatu behar diren etxebizitzetako bat eskatzeko. Bigarren mailan, subsidiarioki, eskualdeko udalerrietan erroldatutakoek izango dute aukera Zaldibarkoek hutsik utzitako etxebizitzak eskatzeko. Eta, azkenik, eskualdearekin mugan dauden udalerrietan erroldatutakoek. Etxebizitzak erosteko lehentasunak ezartzeko sisteman irizpide hauek ezarriko dira: non dauden erroldatuta eta noiztik. Bizikidetzako bikoteen kasuan, gutxienez bikote kide batek bete behar du baldintza.

### **Ez eskatzaileak ez bizikidetz-unitateko kideek ez dute etxerik izango.**

Bizikidetz unitateko kide batek ere ezin du etxebizitza baten titularra izan, ez Zaldibarren ez udalerritik kanpo, inolaz ere ez (jabetza erregimenean, jabetza soilean, azalera eskubidez, gozamen eskubidez edo beste edozein jabari eskubide erreal mugatzaile batez) eta titular izan barik jarraitu behar dute gero ere.

Etxebizitzarik ez edukitzeko salbuespen gisa hartu ahal izango dira jarraian azaldutako arrazoiak:

1. Bizikidetz-unitateko kideren bat beste etxebizitza baten baterako jabea izatea, titulua edozein dela ere, ohiko egoitza eratu gabe. Egoera hori suertatuz gero, etxebizitza berriaren eskriturak egin aurretik bere partaidetza-kuota besterendu duela egiaztatu beharko da.
2. Etxebizitza baten jabetzan daukan partaidetza %50 baino gutxiagokoa denean edo, portzentaje horren modukoa edo gehiagokoa bada, berau erabiltzea eragozten duen ebazpen judizialen bat dagoenean.
3. Bizikidetz unitateko kideren batek (edo guztiek) aurreko idatz-zatian xedatutako bizilekuaren baldintza bete eta udalerritik kanpoko etxebizitza baten titularra denean edo direnean.
4. Bizikidetz unitateko kideren batek etxebizitza baten gaineko errentamendu-eskubidea badauka. Horrelakorik bada, errentamendu-eskubideari uko egingo diola eta etxebizitza tasatua ohiko bizilekutzat erabiliko duela adierazten duen konpromisoa aurkeztu behar du titularrak.
5. - Bizikidetz unitatean minusbaliotasuna daukan kideren bat dagoenean eta minusbaliotasun hori administrazio aginpidedunak egiaztatuta baldin badago, beti ere, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan jasotako araudian ezarritakoarekin bat etorritik. Era berean, haxe egiaztatu behar da: minusbaliotasuna daukan kidearen ohiko bizilekuak ez dituela betetzen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasotako irisgarritasun-baldintzak eta ez daukala igogailurik.

6. Bizikidetzaren unitatean 70 urte baino gehiagoko pertsonaren bat badago, eta ohiko egoitzarako ezarrita duen eraikinak ez baditu betetzen irisgarritasunari buruzko baldintzak eta igogailurik edo bestelako goragailurik ez badago.

1, 2 eta 3. zenbakien kasuetan, ezinbestekoa izango da eskaerarekin batera etxebizitzaren partaidetza eskualdatzeko konpromisoa aurkeztea, eta eskualdatze hori etxebizitza berriaren eskritura egin baino lehen egin behar da, eta halaxe jaso behar da Jabetza Erregistroan. Eskualdaketa hori beharrezko agirien bidez egiaztatu beharko da udalean.

4. zenbakian aurrekusitako kasuan, errentamendu-eskubideari uko egingo diola eta etxebizitza tasatua ohiko bizilekutzat erabiliko duela adierazten duen konpromisoa aurkeztu behar du titularrak. Hitzartutako epea bete orduko gertatzen bada uko egitea, eta uko egite horrek ekar diezazkiokeen eginbeharrak eta kalte-ordainak esleipendunari baino ez dagozkio, bere kontura dira horiek guztiak.

5. eta 6. kasuetan, lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera nahitaezkoa izango da bere jabetzako etxebizitza Udalaren, beste herri-administrazioen baten edo herri-administrazioen menpeko baltzu publikoen alde lagatzeko agiriak ematea, ondoren hirugarrenen alde adjudikatzeko etxebizitza hori (jabetzan zein alokairuan), udalak tasatuko duen zenbatekoan, udal etxebizitza tasatuen edo babeseko erregimenaren barruan. Udalak, beste administrazio batek edo baltzu publiko batek etxebizitza eta eranskinak erostea erabakiz gero, tasazioan etxebizitza horri emandako balioa emango lioke erosleak etxea eskualdatu nahi duenari, erosleak berak egindako balorazioaren arabera. Nolanahi ere, lagatako higiezinaren balorazioak gehieneko muga izango du beti: esleitu zaion sustapenari aplikatutako modulu (prezioa metro karratuko) bera aplikatuko zaio lagatako etxebizitzari, eta, gainera, balio-galera eta egin beharreko konponketen balioa kenduko zaizkio, beste esleipendun batek erabili ahal izateko moduan utzi behar delako etxebizitza hori, beti ere, indarrean dagoen araudia bete behar dela kontuan hartuta, irisgarritasunarena izan ezik. Udalak ez badu etxebizitza hori erosteko eskubidea erabiltzen, eta ahalmena ez badu beste administrazio edo baltzu publiko baten eskuetan uzten, esleipendunak beste bati besterendu behar dio etxebizitza, esleitu zaion etxebizitza erosi ahal izateko, eta konpromiso hori partaidetza-eskaeran jaso behar du.

Ez dira bizikidetzaren unitateetatik hartuko laguntasun edo komenientzia arrazoiengatik sortu direnak. Adinez nagusiak diren bizikidetzaren unitateko kide guztiak izan beharko dira etxebizitzaren titularrak, zuzeneko ondorengoak izan ezik.

\*\*\* Etxebizitzaren salerosketa gauzatzeko unean egiaztapen horiek guztiak berriro egingo dira, zehaztu diren baldintzak betetzen diren ikustearren. Zeregin horretan berriro eska dezakegu egiaztatu beharrekoa egiaztatzeko. Etxebizitza eskatzen denetik esleitzen den arte igarotzen den denbora tartean etxebizitzarik gabeko egoeran jarraitu ez dutenek ez dute etxebizitzarik eskuratzerik izango.

## **BIGARRENA.- TALDE BEREZIENTZAKO ERRESERBAK**

BEREN-BEREGIZKO erreserbak ezarri dira sustapen honetarako. Nolanahi ere, talde horietakoek ere pleguaren lehen idatz-zatiko baldintzak bete behar dituzte. Hona hemen erreserbak:

### 1.Irisgarritasun arazoak dauzkaten minusbaliatuak: 2 etxebizitza gordeko zaizkie

Baldintza batzuk betetzen dituzten minusbaliatuentzako berrogeita zortzi etxebizitzatik bi gordeko dira, bata gela bikoia, beheko solairuan, eta, bestea hiru gelakoa, lehenengo solairuan. Baldintzak: erroldatuta egoteari buruzko baldintza, lehentasuna izango dute Zaldibarren erroldatutakoek lehenengo, eskualdeko udalerrietan erroldatutakoek bigarren, eta eskualdearekin mugan dauden udalerrietan erroldatutakoek azkenean.

Arestion deskribatutako baldintza orokorrak betetzeaz gain, mugikortasun arazoak dituen minusbaliatua dela egiaztatu beharko da.

Mugikortasunari buruzko minusbaliotasunaren maila eta irisgarritasun-arazoak Osakidetzako familiako medikuak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar dira. Mugikortasun urriko ezintasuna dagokion erakundeak (Foru Aldundia edo haren baliokidea) egin behar du: gurpildun aulkia, makulu bi, 7 eta 15 puntu artean izan behar du. Amaitzeko, akatsak zuzentzeko aldi beharrezkoa ikusiz gero, Udalak izendatutako medikuaren txostena eskatu liteke hori guztia egiaztatzeko.

"Minusbaliatuentzako" etxebizitza bat eskuratzeko ez da derrigorrean adin nagusikoa izan behar eskatzailea, bizikidetzaren unitateko kide bat adinez nagusia izanda nahikoa da. Kasu horretan, tutore legalak egin beharko du eskabidea, eta bizikidetzaren unitatean pertsona minusbaliatu bat dagoela eta pertsona hori erroldatuta dagoen etxebizitza beretzat egokia ez dela egiaztatu beharko da.

Zozketa honetan hutsik geratzen diren etxeek afektazioa galduko dute eta zozketa orokorrean zozkatuko dira.

### 2.- Talde orokorra:hondarra

Aurreko txatatean hutsik geratzen diren etxebizitzak eta gordeta ez dauden guztiak ematerakoan, Zaldibarko bizilagunek izango dute lehentasuna; erroldako antzinatasunaren arabera emango dira etxe horiek. Horretarako baldintza hau bete behar dute: etxebizitzarik ez izatea. Subsidiarioki, eskualdean erroldatutakoek izango dute aukera geratu diren etxebizitzak lortzeko, eta, azkenean, eskualdearekin mugan dauden herrietan erroldatutakoek.

### **III.- Subjektu interesdunak**

a) Diru-sarrerak Diru-sarrerak. Sustapen honetako etxebizitzaren eskatzaileek, eskabidea egiten dutenean, ordainketa burutu ahal izateko besteko diru-sarrerak daukatela egiaztatu behar dute. Norbere bitartekoen bidez edo etxebizitza eta eranskinak eskuratzeko beharrezko hipoteka-kreditua emateko finantza-kaudimenari buruzko bankuaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak edo eskatzaileek honako konpromiso hauek hartu beharko dituzte Udal Administrazioaren aurrean:

- Etxebizitza euren bizikidetzaren unitatearen ohiko etxebizitza iraunkorra izateko erabiliko dute. Konpromiso horren zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da eskabidearekin batera. Konpromiso horren zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da eskabidearekin batera.
- Udal etxebizitza tasatuaren mota horren kalifikazio iraunkorra ontzat ematea.
- Eskakizun eta baldintza guztiak onartzea, salbuespenik gabe.
- Aurreko konpromisoak eta baldintzak kontratuan eta ondorengo salerosketaren eskritura publikoan sartu beharko dira, gero Jabetza Erregistroan inskribatu behar denerako.
- Eskatzailearen gaur egungo edo etorkizuneko bizikidetzaren unitateko kideren batek beste etxebizitza bat erosiz gero, Udalari jakinari behar dio, erosi eta hilabeteko epean.
- Aurreko baldintzetakoren bat bete ezean eskabidea prozeduratik kanpo geratuko da.

### **IV.- Dokumentazioa**

Eskabide-orriarekin batera, eranskinean datorren inprimakia edo parte hartzeko eskabidea ekarri behar da, eta III.b puntuan datozen baldintza guztiak onartzen dituela dioen adierazpena jaso behar da. Era berean, norberak ondo irizten dionaz gain, aipatutako baldintza horiek guztiak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu behar dira. Hemen zehatzago adierazita:

#### **Identifikazioari dagozkionak**

- a) Bizikidetzaren unitatean 14 urtetik gora daukaten kideen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Familia-liburuaren edo izatezko bikoteen erregistroan ematen duten izen-emate ziurtagiriaren fotokopia.
- c) Banatze edo dibortzio kasuan, familiaren etxebizitza erabiltzeko erregimena egiaztatzen duen epai judiziala eta hitzarmen arautzailea.
- d) Eskatzaileen, titular kideen eta bizikidetzaren unitateko kideen errolda-agiria.

- e) Ez izatezko bikote ez ezkondu barik egonez gero bikote bat, baina zinpean badio harreman afektiboa daukala eta, zinpean, konpromisoa hartzen badu ezkontzeko edo Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatzeko, esleipen lehiaketan parte hartzeko bizikidetz-unitatetzat onartuko da bikote hori. Esleipendun izanez gero, eta salerosketa kontratua publiko bihurtu aurretik, ondasunen banantze erregimena ez besteren bat izan behar du bikote horrek onartua izateko.

#### **Etxebizitzarik eza egiaztatzeko**

Bizikidetz-unitateko kideetako bakoitzak eta eskatzaileak edo titularkideek etxerik ez daukatela egiaztatzeko haxe aurkeztu behar da:

- Ondasun higiezinik ez daukatela adierazten duen ziurtagiria, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa. Bizkaikoa ez bada, bizikidetz-unitateko kideak erroldatuta dauden udalerriko Ogasun Ordezkaritzak edo zergak ordaintzen dituen Ogasun sailak eginikoa.
- Ondasun higiezinik ez duela adierazten duen ziurtagiria, Estatuko Ogasunak egindakoa.
- Beharrezkotzat jotzen den beste edozein ziurtagiri edo bide. Ondasunik ez duela adierazten duen Erregistroko ziurtagiriak ez du balio, baldin eta aurreko txataletan aipatutako ziurtagiri barik.
- Etxebizitza ez beste ondasun higiezinen bat edukiz gero, erregistroaren eta Ogasun sailaren ziurtagiria ekarri behar da, ondasunaren izaera eta baldintzak zein diren jakiteko.
- II c) puntuan jasotako salbuespenaren harira, pertsonaren jabetzakoa den etxebizitza besterentzeko haxe aurkeztu behar da eskariarekin batera: etxebizitza besterentzeari buruzko eskritura eta besterentzea burutu dela adierazten duen erregistroko ziurtagiria, baita hori bera egiaztatzen duen konpromiso zinpeko aitorpena ere. 1, 2 eta 3. zenbakien kasuetan (II. puntua), ezinbestekoa izango da eskaerarekin batera etxebizitzaren partaidetza eskualdatzeko konpromisoa aurkeztea, eta eskualdatze hori etxebizitza berriaren eskritura egin baino lehen egin behar da, eta halaxe jaso behar da Jabetza Erregistroan. Eskualdaketa hori beharrezko agirien bidez egiaztatu beharko da udalean.

II. puntuko 4. zenbakian aurrekusitako kasuan, errentamendu-eskubideari uko egingo diola eta etxebizitza tasatua ohiko bizilekutzat erabiliko duela adierazten duen konpromisoa aurkeztu behar du titularrak. Hitzartutako epea bete orduko gertatzen bada uko egitea, eta uko egite horrek ekar diezazkiokeen eginbeharrak eta kalte-ordainak esleipendunari baino ez dagozkio, bere kontura dira horiek guztiak.

II. puntuko 5. eta 6. kasuetan, lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera nahitaezkoa izango da bere jabetzako etxebizitza Udalaren, beste herri-administrazioen baten edo herri-administrazioen menpeko baltzu publikoen alde lagatzeko agiriak ematea, ondoren hirugarrenen alde adjudikatzeko etxebizitza hori (jabetzan zein alokairuan), udalak tasatuko duen zenbatekoan, udal etxebizitza tasatuen edo babesekoan erregimenaren barruan. Udalak ez badu etxebizitza hori erosteko eskubidea erabiltzen, eta ahalmena ez badu beste administrazio edo baltzu publiko baten eskuetan uzten, esleipendunak etxebizitza beste bati besterendu izana adierazten duen agiria aurkeztu behar du, esleitu zaion etxebizitza erosi baino lehen.

#### **Diru-sarrerak egiaztatzeko**

Eskatzaileek etxebizitza erosteko besteko diru-sarrera dituztela egiaztatu behar dute. (Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko diru-sarrerak, banakakoak nahiz bizikidetzako unitateetan lortutakoak, ezin dira izan sustapen publikoko gizarte etxebizitzak -erregimen bereziko babes ofizialeko etxeak- eskuratzeko ezarrita dauden gehieneko diru sarrerak baino txikiagoak, urtean 9.000,00.- €), ezta era horretako etxebizitza bat erosteko aukera izateko jarri diren gehieneko kopuruak baino txikiagoak. Onuradunen gehieneko diru-sarrerak, banakakoak nahiz bizikidetzako unitateetan integratutakoak, ezin dira izan 1,5 indizetik gorakoak, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko urteko gehieneko diru-sarrerak oinarri hartuta. (erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako urteko gehieneko diru-sarrerak: 33.100.-€, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriari buruzko Dekretuaren laugarren aldaketa egiteko maiatzaren 23ko 107/2006 Dekretuaren arabera. Horretara, bada, Ordenantza onartu den egunerako gehieneko diru-sarreraren kopurua hauexa da: 49.650,00.-€ urtean). Eskatzaileak onartu ala baztertzera haxe hartuko da kontuan: diru-kopurua (mugen barruan beti), diru-sarreraren erregulartasuna eta egiazkotasuna. Eskatzaileek -banakako nahiz bizikidetzako unitateko kide izan- guztira dauzkaten diru-sarrerak egiaztatu behar dituzte. Hona hemen modua:

1. PFEZren aitortzea aurkeztera derrigortuta ez dauden eskatzaileek eta bizikidetzako unitateek, edonola ere, ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- PFEZren aitortzea aurkezteko derrigorrik ez baldin badaukate, betebeharrak hori ez daukatela ziurtatzen duen agiria, Foru Ogasunarena nahiz Zerga Agentziarena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria, aurkeztu aurreko 30 egunen barruan egindakoa.
- Besteren konturako langileak badira, enpresak edo enplegu-emaileak egindako agiria, ekitaldi horretan eta aurreko hamabi hilabeteetan kontzeptu guztiengatik jaso dituen diru-sarrera gordinak azalduz. Ziurtagiri horretan lan-kontratuaren izaera eta iraupena zehaztu behar dira.
- Pentsiodunak izan edo beka, sari edo diru-laguntzaren bat jasotzekotan (gizarte ongizateko laguntzak barne), horien gaineko ziurtagiriak, ordaintzen duen erakundeak eginak, eta dagokion ekitaldikoa; ordainsariaren iraupena jaso behar da ziurtagirian.
- PFEZren aitortzea aurkezteko derrigorrik izan ez arren, bestelako diru-sarrerarik izanez gero, dagokion ekitaldian izandako diru-sarrera horiek ziurtatzen dituen agiria aurkeztu behar dute.
- Diru-sarrerarik ez duten bizikidetzako unitateko 16 urtetik gorako kideek diru-sarrerarik ez dutela adierazten duen zinpeko aitortzea aurkeztu behar dute.

2. PFEZren aitortzea egiteko betebeharrak baldin badaukate edo PFEZren aitortzea eginda baldin badute, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar dute:

- Pertsona fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren eta behin-behineko kitapenaren gainean bai eskatzaileak/ek, baita bizikidetzako unitateko

kide guztiek, aurkeztutako Aitorpen(ar)en fotokopia(k), eskaera aurkezten den aurreko urtekoa.

- Gainera, kotizazio gabeko laguntzak jasotzen baldin badituzte, horien zenbatekoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

3. Etxebizitzaren eskatzaileek, eskabidea egiten dutenean, etxebizitza eta eranskinak eskuratzeko beharrezko hipoteka-kreditua emateko finantza-kaudimenari buruzko bankuaren ziurtagiria aurkeztu behar dute. Eskatzaileek aukeran duten etxebizitzaren preziora mugatuko da eskatzaileei gehienez eman dakiekeen hipoteka-kredituaren balioa.

4. Ondareari buruzko zergaren aitorpena derrigorrean aurkeztu behar duten ala ez ziurtatzen duen agiria, Foru Ogasunarena nahiz Zerga Agentziarena, norbanakoarena eta bizikidetzako unitateko kideena. **Merkatu librean etxebizitza bat erosteko besteko ondasun edukiz gero, eskatzailea beste barik kanpoan geratuko da.**

5. Hala ere, Zaldibarko Udalak beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango du. Udalaren agindei hori interesdunak hamar eguneko epean bete beharko du, jakinarazten zaion egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta; eta epe horretan agindeia beteko ez balitz, eskabidea prozeduratik kanpo utziko litzateke zuzenean eta behin betiko.

#### **Ohiz kanpoko egoerak egiaztatzeko.**

*Minusbaliatuei dagokienez:*

- a) Arkitekto edo aparejadore baten txostena, eskatzaileak etxea izanez gero, etxe horretan oztopo arkitektonikoak daudela ziurtatzeko.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate sailaren edo haren pareko Foru edo EAEko sailaren ziurtagiria, minusbaliotasun-maila egiaztatu eta zehazteko.
- c) Osakidetzako familia medikuaren txostena, mugikortasun minusbaliotasunaren arazoaren jatorria azaltzeko eta arazo horregatik zein tresna erabili behar duen jakiteko.
- d) Minusbaliatua eskatzailea ez bada, minusbaliatu hori bizikidetzako unitatearen parte dela eta gutxienez iragarkia kaleratu baino urte bete lehenago unitate horren parte zela ziurtatzen duen agiria.
- e) Minusbaliatuaren etxeak ez badu betetzen irisgarritasunari buruzko araudia eta etxe hori bada bizikidetzako unitatearen titularitateko etxe bakarra, euren jabetzako etxebizitza Udalari besterentzeko konpromisoa hartzen dutela dioen agiria aurkeztu behar dute. Besterendu ostean, Udalak beste bati esleituko dio, Udalak berak tasatutako prezioan, udal etxebizitza tasatuen erregimenaren barruan, beti ere, etxebizitzaren egoera zein den eta beste bati esleitzeko moduan egon dadin egin beharreko obrek zenbateko gastua ekarriko duten kontuan hartuta.

#### **V. Eskaerak**

Eskabideak Zaldibar Elizateko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira hogeit hamar egun naturaleko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Era berean, Zaldibarko

udaletxeko iragarki-oholean eta Bizkaiko Lurralde Historikoan gehien zabaltzen den egunkarietako batean argitaratuko da iragarkia.

Eskabideak Zaldibarko udal-bulegoetan eskuratu ahal izango den eta, era berean, agiri honen I. eranskinean agertzen den eskaera-eredu ofizialean formalizatuko dira. Beste eskaera-ereduren bat erabiliz gero, eranskinean datozen adierazpen eta xehetasun guztiak jaso behar dira.

Eskabidearekin batera, baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira. Eskatzaileentzako eta bizikidetzta-unitateko kideentzako betekizunak dira horiek.

Salerosketa kontratua eta eskritura publikoa, eskabide-orrian eskatzaile gisa agertzen diren pertsonen alde izenpetuko dira.

Ez dago eskaera bat baino gehiago aurkezterik. Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, aurkeztu den lehenengoa izango da onartuko dena; salbuespen batekin: banakako eta baterako eskabideak aurkeztu badira, kasu horretan, batera aurkeztutakoa hartuko da kontuan.

Etxebizitza eskatzaileak eskabide-orrian idatzitako daturen bat aldatuz gero, Zaldibarko Udalari aldaketa horren berri ematera behartuta daude eta hori egiteko hamabost egun balioduneko epea izango dute aldaketa hori gertatu den egunetik zenbatzen hasita. Gertatutako aldaketen berri eman ezean, eskabidea ez onartzea jazo daiteke. Gertatutako aldaketen berri eman ezean, eskabidea ez onartzea jazo daiteke.

## **VI.- Zuzenketak**

Eskabideak aztertuta, zuzendu beharreko eskabideen zerrenda argitaratuko da udaletxeko iragarki-oholean. Zerrendarekin batera, osotu beharrekoa edo erantsi beharreko agiriak azalduko dira. Zuzenketa horiek egiteko edo falta dena aurkezteko hogeita (20) egun balioduneko epea emango da.

Epe horretan eskabidea osotu ez bada edo eskatutako agiriak aurkeztu ez badira edo, modu berean, agiriak aztertuta bertako datuak gezurrezkoak direla edo ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen ez direla ikusi bada, Udalak ez du eskabide hori tramitatuko.

## **VII.- Hautatutako zerrenda**

Behin betiko zerrenda udaletxeko iragarki-oholean ipiniko da, behin betiko ontzat eman eta biharamunean. Zerrendarekin batera, etxebizitza bakoitza hautatu diren pertsonen artean eta notario aurrean edo udal idazkariaren aurrean zein leku, egun eta ordutan zozkatuko den adieraziko da beren-beregi.

Beti nagusi izan behar den irizpidea: erreserba. Eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenek izango dute aukera erreserbatutako etxebizitzak hartzeko. Multzo edo talde bakoitzaren barruan, irizpide nagusiak hauexek dira: Zaldibarren erroldatuta izatea eta erroldaren-antzinatasuna, hau da, noiztik dauden eskatzaileak erroldatuta. Erreserba-taldea ezarri da irisgarritasun arazoak dituzten minusbaliatuentzat. Esleitu barik geratzen diren gainontzeko etxebizitzak zozketa orokorrean sartuko dira.

Onartutakoen artean zozkatuko dira etxebizitza guztiak. Honela egingo da zozketa:

1. Lehenengo minusbaliatuentzat gordetako etxebizitzak zozkatuko dira horretarako baldintzak betetzen dituzten artean.

2. Hurrengo, zozketa orokorra egingo da, zozketa horretan parte hartzeko baldintzak bete eta aurreko zozketan esleipendun suertatu ez diren artean.

Talde bakoitzaren barruan, etxebizitzak esleitzeko edo hautatzeko hurrenkeraren gaineko zozketa egingo da, eta lehentasunak ezartzerakoan hauxe hartuko da kontuan: Zaldibarren erroldatuta egotea eta noiztik dauden erroldatuta.

Hona hemen lehentasunak:

1. Zaldibarren erroldatutakoak: batetik, jarraian erroldatutakoak, gutxienez duela 10 urtetik hona, oinarri hauek argitaratzen diren eguna oinarri hartuta, eta, bestetik, etenekin erroldatutakoak, duela 15 urtetik hona, oinarri hauek argitaratu aurretik eta izena emateko epea ixten den egunean ere erroldan jarraituz gero.

2. Oinarriak argitaratzen diren eguna oinarri hartuta, azken 20 urteetan -etenekin edo barik- 5 urte erroldatuta egin dituzten eskatzaileak eta izena emateko epea ixten den egunean erroldan jarraituz gero.

3. Oinarriak argitaratzen diren egunean Zaldibarren erroldatutakoak, izena emateko epea ixten den egunean erroldan jarraituz gero.

4. Oinarriak argitaratzen diren egunean eskualdean erroldatutakoak, izena emateko epea ixten den egunean erroldan jarraituz gero.

5. Oinarriak argitaratzen diren egunean eskualdearekin mugan dauden udalerrietan erroldatutakoak, izena emateko epea ixten den egunean erroldan jarraituz gero.

Etxebizitza baino eskari gehiago badago, kanpoan geratzen diren eskaerekin itzarote zerrenda osatuko da, eta sustapen honetan etxeren bat hutsik geratzen bada, zerrenda hori erabiliko da, bertan datorren hurrenkeran, gerta baitaiteke esleitutako etxebizitzari uko egitea edo hasieran hautatutakoen multzoan egoteko bete behar ziren baldintzak galtzea.

Hori guztia kontuan hartuta, hona hemen zozketaren urratsak:

Zenbatutako bi zerrenda osatuko dira irizpide aleatorio baten arabera: bata, mugikortasun-arazoak dituzten minusbaliatuekin eta, bestea, orokorra, onartutako eskatzaile guztiekin, mugikortasun aldetik minusbaliotasunen bat dutenak barne.

## 1.Zozketa

Lehendabiziko zozketan eskatzailearen zenbakia aterako da. Eta gero irisgarritasun-arazoak dituzten minusbaliatuentzako etxebizitzak lortzeko esleipen-irizpideak ezarriko dira. Onartutako baten zenbakia atera bada, horrek izango du etxebizitza hautatzeko eskubidea edo, bestela, Zaldibarren erroldatutako hurrengoa.

Onartutakoen zerrendan Zaldibarren erroldatutakorik ez badago edo bakarra egonez gero, eskualdean erroldatutako hurrengoa izango da aukeratutakoa.

Amaitzeko, eta talde honetan onartutakoen artean etxebizitzaren bat hutsik geratuz gero, irizpide bera erabiliko da eskualdearekin mugan dauden udalerrietan erroldatutakoekin.

Bi etxebizitza horiek hautatzeko eskubidea esleitu eta gero, irizpide berak erabiliko dira zerrendan geratzen direnekin itzaroteko zerrenda osatzeko.

## 2.Zozketa

Eskatzaile bakoitzari dagokion zenbakia aterako da; hori egin ostean, zozketa orokorrean esleipena egiteko irizpideak ezarriko dira, beti ere, zerrenda orokorrean onartutakoen artean. Zozketa honetatik kanpo geratuko dira erreserba-taldean esleipendun suertatutakoak, ez dute izango aukerarik berriro esleipen izateko.

1. Horrenbestez, onartutako baten zenbakia ateratzen denean, onartutako horrek izango du hautatzeko eskubidea, edo zerrendako hurrengoak, Zaldibarren erroldatuta egonez gero (batetik, gutxienez duela 10 urtetik hona erroldatutakoak, oinarri hauek argitaratzen diren eguna oinarri hartuta, eta, bestetik, etenekin erroldatutakoak, duela 15 urtetik hona, oinarri hauek argitaratu aurretik). Eskubide horren esleipendun izango dira lehentasunezko irizpide hori bete eta ateratako zenbaki horren atzetik daudenak zerrendako hurrenkeran; eta horrela jarraituko dute zozkatu beharreko etxebizitza guztiak esleitu arte.

2. Etxebizitzaren bat hutsik geratuz gero, ateratako zenbakiaren jabeak izango du hautatzeko eskubidea edo zerrendako hurrengoak, Zaldibarren erroldatuta egonez gero (batetik, azken 20 urteetan gutxienez 5 urtean erroldatuta egondakoak, etenekin edo eten barik, oinarri hauek argitaratzen diren eguna oinarri hartuta). Eskubide horren esleipendun izango dira lehentasunezko irizpide hori bete eta ateratako zenbaki horren atzetik daudenak zerrendako hurrenkeran; eta horrela jarraituko dute zozkatu beharreko etxebizitza guztiak esleitu arte.

3. Etxebizitzaren bat hutsik geratuz gero, ateratako zenbakiaren jabeak izango du hautatzeko eskubidea edo zerrendako hurrengoak, Zaldibarren erroldatuta egonez gero (oinarriak argitaratzen direnerako eta izena emateko epea ixten denerako). Eskubide horren esleipendun izango dira lehentasunezko irizpide hori bete eta ateratako zenbaki horren atzetik daudenak zerrendako hurrenkeran; eta horrela jarraituko dute zozkatu beharreko etxebizitza guztiak esleitu arte.

4. Etxebizitzaren bat hutsik geratuz gero, ateratako zenbakiaren jabeak izango du hautatzeko eskubidea edo zerrendako hurrengoak, eskualdeko udalerriren batean erroldatuta egonez gero (oinarriak argitaratzen direnerako eta izena emateko epea ixten denerako). Eskubide horren esleipendun izango dira lehentasunezko irizpide hori bete eta ateratako zenbaki horren atzetik daudenak zerrendako hurrenkeran; eta horrela jarraituko dute zozkatu beharreko etxebizitza guztiak esleitu arte.

5. Etxebizitzaren bat hutsik geratuz gero, ateratako zenbakiaren jabeak izango du hautatzeko eskubidea edo zerrendako hurrengoak, eskualdearekin

mugan dauden udalerrietako batean erroldatuta egonez gero (oinarriak argitaratzen direnerako eta izena emateko epea ixten denerako). Eskubide horren esleipendun izango dira lehentasunezko irizpide hori bete eta ateratako zenbaki horren atzetik daudenak zerrendako hurrenkeran; eta horrela jarraituko dute zozkatu beharreko etxebizitza guztiak esleitu arte.

\*\*\*\* Bizikidetzako bikoteek egindako eskaeren kasuan, eta aurreko txataletan aipatutako lehentasunen irizpideetarako, ondoen ateratzen den eskatzailearen errolda-agiria eta antzinasuna hartuko dira kontuan.

### **VIII.- Etxebizitzaren esleipena eta esleipena gauzatzea**

Esleipendunen zerrenda egin ostean, etxebizitza hautatzeko hurrenkeran zozketan esleitu zaien lekua jakinaraziko zaie hautatutako guztiei; jakinarazpen horretan zazpi (7) egun baliouduneko epea emango zaie sustatzailearen bulegoetara joan eta onartzen duten ala uko egiten dioten jakinarazteko.

Norbaitek eskubideari uko egiten badio edo baldintzaren bat betetzen ez badu, itxarote-zerrendako pertsonari deituko zaie, eta horiei ere zazpi (7) eguneko epea emango zaie esleipena onartzen duten ala uko egiten dioten jakinarazteko.

Etxebizitzaren bat hutsik geratuz gero, itxarote-zerrendako eskatzaileek hartuko dute hurrenez hurren hautatzeko eskubidea duten esleipendunen zerrendaren azken lekua.

Sustapen hau Zaldibarko Udal Etxebizitza Tasatuen Ordenantzak arautzen du, Oinarri hauetan ezarritako baldintzekin, eta sustapen honetako zozketan izena eman duten guztiek, baita esleipendunek ere, badakite eta beren-berengi onartzen dute lehentasunez erosteko eta atzera egiteko klausula dagoela Zaldibarko Udalaren eta, subsidiarioki, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren alde. Etxebizitzaren gaineko baldintzak eta erabilpena betetzen ez badira erabili ahal izango da beti prozedura hori, eskriturak egiten direnetik aurrera zenbatzen hasita.

### **IX.- Datuen babesa**

Eskatzaileek esleipen-prozesuan emandako datu pertsonalei haxe ezarriko zaie: Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Legean, Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onetsi zuen ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretua eta datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea nahiz horiek garatzeko araudia.

Udal etxebizitza tasatua eskuratzeko lehentasunezko eskubideen esleipen-prozesuan jasotako datuak datu pertsonalen fitxategi automatizatuan barneratuko dira. Fitxategi horren helburua ondorengo da: eskatzaileek emandako eta Udalaren oinarri hauetan eskatutako datu pertsonalen tratamendua. Zaldibarko Udala da datuen hartzailea. Zaldibarko Udala izango da fitxategi horren arduraduna eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, eragozpenak jartzeko eta ezeztatzeko Zaldibarko Udalera jo behar da.

Eskaera aurkezteak berekin dakar aukeraketa prozesu hau kudeatzeko emandako datu pertsonalen tratamenduari onespina ematea, eskatzaileek beren-berengi udal langileei ematen diete baimena datuak tratatzeko eta

Zaldibar Hirigintzen SAU udal sozietatearen lege aholkularitzari datuak aztertzeko. Adostasun horrekin aipatutako erakundeek baimena daukate datuak Interneten eta udal iragarki-oholean (zuzenketak egiteko zerrendetan edo onartutako zerrendetan) argitaratzeko, baina datu ekonomikoak eta hertsiki pertsonalak direnak ez.

Fitxategia sortzeko arauetan zehazturikoaren arabera, esleipen-prozesuan emandako datuak esleitutako eskubideak gauzatzean parte hartzen duen etxebizitzaren sustatzaileari eta fede-emaile publikoari laga ahal izango zaizkio. Lagapen hori eurek emandako datu pertsonalei dagokienez gauzatu nahi duten eskatzaileek espresuki baimendu beharko dute hori eskabidean.

Esleipen-prozesuan emandako datuen tratamenduan kontuan hartuko dira ezarritako segurtasun-neurrien Araudian zehazturiko segurtasun-mailaren araberako segurtasun-neurriak.

#### **X.- Kontratuak: kontratua izenpetzea eta eskriturak egitea**

Sustatzaileak ezarriko ditu kontratuak izenpetzeko epeak, esleipendunek ezarri beharko dituzten aurrerakin edo fidantzak, eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea behar bezala burutzeko beharrezko gainerako baldintza guztiak.

Esleipendunek (erosleak) eta sustatzaileak (saltzaileak) izenpetuko dituzte etxebizitzaren salerosketa kontratuak, eta horietan agertzen diren klausulek eraenduko dituzte, beti ere, oinarri hauetan, Zaldibarko udal etxebizitzaren tasatuen Ordenantzaren, Kode Zibilean eta aplikatu daitezkeen gaineko legerian xedatutakoaren kaltetan gabe.

Edonola ere, etxebizitzetako behin betiko salerosketa kontratua eskritura publikoan formalizatuko da, obra amaierako ziurtagiria eman eta gero. Sustatzaileak esleipendun guztien datuak eman behar dizkio Zaldibarko Udalari, esleipendunak eta zozketan hautatutakoak alderatzeko.

Legez dagozkien gastu eta zerga guztiak erosleek ordaindu behar dituzte. Oinarri hauetan jasotako prezioei Balio Erantsiaren gaineko Zerga ezarri behar zaiela utzi behar da beren-berengi jasota, eta erosleak ordaindu behar du zerga horri dagokiona (ehuneko zazpi -%7).

Zaldibar, 2008ko maiatzaren 29a

I. eranskina - ESKAERA EREDUA

Etxebizitza eskabidea  
*Solicitud de vivienda*

ZALDIBARKO UDALA  
*AYUNTAMIENTO DE ZALDIBAR*

Eskabide zk..... (Udalak beteko du)  
*Nº de solicitud* (a rellenar por el  
*Ayuntamiento*)

Izen-deiturak/*Don/Doña*:

.....

NAn zkia / *DNI*: .....

Telefonoa zkia / *Teléfono*: .....

Helbidea / *Domicilio*:

.....

Udalerrria / *Municipio*: .....

Adina / *Edad*: .....

Minusbaliatua / *Minusválido*: bai/si....., ez /no..... (X marka  
ipini dagokion lekuan/marcar con x lo que corresponda)  
Maila / *Grado*: .....

Etxebizitzaren jabea / *Propietario de vivienda*: bai/si ..... ez/no  
.....  
(X marka ipini dagokion lekuan/marcar con x lo que corresponda)

Eskabidearekin batera aurkeztu diren *Documentos que se adjuntan a la*  
agiriak *solicitud*

- Eskatzailearen edo eskatzaileen NANaren fotokopia.
- *Fotocopia del DNI del (de los/as) solicitante(s).*
- Etxebizitza eta eranskinak eskuratzeko beharrezko hipoteka-kreditua emateko finantza-kaudimenari buruzko bankuaren ziurtagiria.
- *Certificación bancaria de solvencia financiera para la concesión de crédito hipotecario suficiente para la adquisición de la vivienda y anexos.*
- Eskuratuko duen/duten etxebizitza euren bizikidetzak-unitatearen ohiko etxebizitza iraunkorra izango dela dioen zinpeko aitortpena.
- *Declaración jurada de destinar la vivienda que adquiera(n) a residencia habitual y permanente de su unidad convivencial.*
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun

- Sailak eta Estatuko Ogasunak egindako ziurtagiria, eskatzailearen edo eskatzaileen izenean dauden hiri-ondasunak azaltzen dituena.
- Erroldaren ziurtagiria(k).
  - Familia-liburuaren fotokopia.
  - Minusbaliotasunari buruzko ziurtagiria, mota eta maila zehaztuz.
  - Bere etxebizitzan arkitektura-oztopoak daudela dioen txostena.
  - Mugikortasunaren medikuaren agiria.
  - Bestelako dokumentazioa:
- *Certificación del Departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Bizkaia y Hacienda Estatal en la que figuren los bienes urbanos que figuran a nombre del/de los/as solicitante(s).*
  - *Certificado(s) de empadronamiento.*
  - *Fotocopia del Libro de Familia.*
  - *Certificado de minusvalía que especifique el tipo y el grado de la misma*
  - *Informe de técnico competente de la existencia de barreras arquitectónicas en la vivienda de su propiedad.*
  - *Informe médico de grado de movilidad.*
  - *Otra Documentación:*

Sinadura/Firma:

II. ERANSKINA - ANEXO II: OHIKO ETXEBIZITZA ERABILITZEKO ZINPEKO AITORPENAREN EREDUA / MODELO DE DECLARACIÓN JURADA DE USO DE VIVIENDA HABITUAL

Se plantea una fórmula abierta, si bien se proponen como posibles redacciones:

*"El abajo firmante jura/promete que en caso de tocarle una de las viviendas tasadas que va a sortear el Ayuntamiento de Zaldibar, lo dedicará al uso de vivienda habitual, según disponen las bases reguladoras del sorteo."*

O

*"Yo, ....., juro/prometo que en caso de tocarme una de las viviendas tasadas que va a sortear el Ayuntamiento de Zaldibar, lo dedicaré al uso de vivienda habitual, según disponen las bases reguladoras del sorteo."*

Eredu irekia proposatzen da:

*"Idatzi hau sinatzen duenak Zaldibarko Udalak zozketatuko dituen etxebizitza tasatuetako bat egokituz gero, ohiko etxebizitza legez erabiliko duela zin egiten / agintzen du, zozketaren araudiak esaten duen bezala."*

Edota

*"Nik, ....., Zaldibarko Udalak zozketatuko dituen etxebizitza tasatuetako bat egokituz gero, ohiko etxebizitza legez erabiliko dudala zin egiten / agintzen dut, zozketaren araudiak esaten duen bezala."*

III. ERANSKINA - ANEXO III: BANKETXEEN KAUDIMEN-AGIRIAREN EREDUA /  
CERTIFICADO DE SOLVENCIA BANCARIA

"Sin perjuicio de las circunstancias personales de D.....  
que en el momento de la firma del contrato, y del nuevo análisis que dicho  
momento requiera, D..... es  
persona solvente a juicio de esta entidad como para que se le sea  
concedido crédito hipotecario suficiente para la adquisición de la  
vivienda y anexos, del sorteo de viviendas tasadas a celebrar por el  
Ayuntamiento de Zaldibar, cuyo precio asciende hasta 231.000,00.- €. La  
emisión de este certificado no implica obligación de concesión de crédito  
en el momento que resulte, si se produjesen cambios en las circunstancias  
de D....."

"Banketxe/Aurrezki Kutxa honen ustez..... jaunak/andreak  
Zaldibarko Udalak Zozketatuko dituen etxebizitza bat (aparkalekua eta  
trastelekua barne) erosteko adina kaudimen du, Banketxe/Aurrezki Kutxa  
honek horretarako hipoteka-kreditua emateko bestekoa, prezioa gehienez  
231.000,00 Eurokoa izan litekeela kontuan harturik.  
..... jaunaren/andrearen inguruabar  
ekonomikoak berriro aztertuko dira kontratu sinatzen duenean, eta  
litekeena da etorkizunean hipoteka-krediturik ez ematea, eskatzailearen  
inguruabarretan aldaketa nabarmenak egotekotan."